

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2821

*1027/2025 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren medikua kategorian (etxeke ospitalizazioko fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1758/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren medikua kategorian (etxeke ospitalizazioko fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 12ko 988/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren medikua kategorian (etxeke ospitalizazioko fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEtan deitutakoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da izangaien behin betiko ebazpenaren I. eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeko ebazpena, indarrean dagoen legeriak langileen arloan emandako ahalmenez baliatuz.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, 2020-2021-2022ko EPEaren txanda ireki bidez, medikua kategorian (etxeke ospitalizazioko fakultatibo espezialista mediko lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak zita eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetakoz nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargokide-egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotik hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikotako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikotarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikotarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

2025eko ekainaren 24a, asteartea

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 12a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko ekainaren 24a, asteartea

**ERANSKINA**  
**2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO**  
**DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA**  
**FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA**  
**TXANDA IREKIA OPOSIZIO LEHIAKETARAKO BLOKEA**

| NAN/AIZ   | Izangaila                   | Destino esleituia  | Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa |
|-----------|-----------------------------|--|---|
| ***8922** | Ruiz Monge, Ana Rosa        | Debagoieneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-<br>Ospitaleko arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón /<br>Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko<br>Ospitalizazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Asteburuekin edota<br>jaleguneekin         | 2   |
| ***2979** | Unamuno Ugartemendia, Irati | Bidasoko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko<br>arreta / Bidasoko Ospitalea-Hondarribia / Zerbitzu Klinikoak-<br>Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa / 2 Txanda-2<br>Txanda Go/A-Besterik gabe   | 2   |
| ***3739** | Eceolaza Gallastegui, Amaia | Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-<br>Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu<br>Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa /<br>Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin             | 2   |
| ***2590** | Besga Basterra, Ariadna     | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-<br>Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo /<br>Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko<br>Ospitalizazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin                       | 2   |
| ***7762** | Sanchez Hernandez, Sara     | Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-<br>Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San<br>Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-<br>Etxeko Ospitalizazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe                 | 2   |
| ***9857** | Conde del Pozo, Ana Belen   | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-<br>Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo /<br>Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko<br>Ospitalizazioa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-<br>Guardiekin | 2   |

2025eko ekainaren 24a, asteartea

| NAN/AIZ   | Izangaia                            | Destino esleitua   | Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa |
|-----------|-------------------------------------|--|---|
| ***3299** | Javares Artigues, Paz Sanda         | Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Guardiekin                       | 2   |
| ***3425** | Bea Olabarria, Andrea               | Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin | 2<br>2022-11-20                           |
| ***6859** | Urzay Atucha, Virginia              | Goierri-Urola Garaiko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe                           | 2<br>2023-12-03                           |
| ***7785** | Larrazabal Ibañez de Opacua, Arrate | Goierri-Urola Garaiko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Zerbitzu Klinikoak-Etxeko ospitalizazioko unitatea-Etxeko Ospitalizazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe                           | 2<br>2008-11-03                           |